

BETIZU ETA XANGADUKO MISTERIOA

Egoitz Rodríguez Olearen eskutik

Sinopsia

Istripu bat izan ostean, Betizuak basamortu itxurako planeta batean lurreratuko dira. Laster konturatuko dira ez daudela bakarrik. Basapizti maltzur bat planetaren jabe egin da, eta bertan dagoen altxorra aurkitu nahi du. Basamortuko biztanle guztiak preso hartu ditu altxorra aurkitzen lagun diezaioten. Betizuek galtza bete lan izango dute: basamortuko biztanleei lagunduko diete, altxorra aurkitzen saiatuko dira eta espazio-ontzia konpondu behar izango dute, hori baita basamortutik ateratzeko era bakarra.

BETIZU ETA XANGADUKO MISTERIOA, Betizuak protagonistatzat dituen 3 dimentsiotan egindako marrazkiz osatutako abenturazko filmea da.

Argumentua

Buff Alua enperadorea garaitu ondoren, eta galaxiara bakea eta harmonia itzuli ondoren (Betizu izar artean, 2002, 71 minutu), Betizuk, Betisuissek, Eme-Uk eta Arratik bidaia lasaiari ekingo diote espazioan zehar. Baina, nahi gabe egindako huts egite baten ondorioz, espazio-ontziak planeta txiki bat joko du, Xangadu izeneko planeta desertua. Zalantza une baten ondoren, espazio-ontzia ikusiko dugu, istripua izan duen tokian bertan. Gure protagonistek arazoak izango dituzte espazio-ontzitik ateratzeko.

Lehendabizi espazio-ontzia martxan jartzen ahaleginduko dira, berriz ere bidaiari ekiteko. Baina laster konturatuko dira espazio-ontziak konponketak behar dituela. Betizuren ustez, gaua igarotzeko aterpe bat egitea litzateke aukerarik onena, eta biharamunean espazio-ontzia konpontzen saiatu. Arratik, berriz, nahiago du denbora onaz gozatu hondarreen eta izarren argitan lo egin.

Gauean basamortuko hondar ekaitza hasiko da. Aterpe barruan daudenek barre egingo dute Arratiren kontura, suaren ondoan jolasten eta itzalak egiten dituzten bitartean. Bat-batean itzal handi batek eszena osoa ilunduko du. Gero eta beldurtuago daude. Euli multzo batek eraso egingo die. Hasierako ustekabearen ostean jakingo dute nork eragin dien beldurra: Marroik. Marroi behia da, zikina, itzelezko kiratsa dario eta adar artean milaka euli ditu bueltaka. Bere itxurari begiratuta denek arbuiatuko dute, Betizuk izan ezik. Betizuren adiskidetasunari eta borondate onari esker euren artean onartuko dute, gogoz kontra bada ere. Hortxe hasiko da, hain zuzen, Xangaduko benetako misterioa. Marroi zeharo izututa dagoela ikusiko dute. Sekretu bat dauka, zorigaitz handia. Bere esanetan, aberasteko asmoz edozer egiteko gai diren izaki batzuk daude uhartean. Aldi berean Bull izeneko buruzagiarentzat ari dira lanean, Bullek ospea lor dezan.

Gure lagunen adiskidetasuna lortutakoan, Marroik arkeologo oso aditua dela esango die, eta Bull zezen gaiztoak bere borondatearen kontra bahitua egon dela. Zientzialari, historialari eta arkeologo talde bateko kide dela esango die, eta Bullek eta bere soldaduek

engainatu egin zituztela. Beren borondatearen kontra eraman zituzten basamortura, antzina Xangadun bizi ziren behien altxorra aurkitzeko asmoz. Antza denez, antzinako behi horiek itzelezko ondasunaren jabe ziren eta oso boteretsuak ziren. Antzinaroko zibilizaziorik boteretsuena izan zen eta hala erakutsi zaigu historian zehar gaur egun arte. Hala ere, ehunka urte dira Xangadutarren zibilizazioa desagertu zela, eta inortxok ere ez daki zergatik. Ez zegoen modurik jakiteko beren historia benetakoa zen, ala ipuina. Orduan, Bull gaiztoak izaki horiei buruzko mapa eta pergamino batzuk aurkitu zituen. Marroik eta bere lankideek Museo batean egiten zuten lan, eta basamortuan aurkitutako guztia museorako izango zela agindu zien Bullek.

Baina Bullek ez ditu bakarrik arkeologoak zapalduko. “Xanu” planetako biztanleak (sator itxura duten izaki onbera eta primitiboak) gatibu hartu ditu hondeatzaile ezin hobeak baitira. Euren kulturaren azken aztarnak desagertzeaz daude, basamortuan omen dagoen altxorraren bilaketa dela-eta. Bullentzat Xanuak mendeko espezie eta kultura besterik ez dira. Beraz, goi-mailako arraza baten mesederako egin behar dute lan.

Marroik altxorra aurkitzeko erabakigarria den aurkikuntza egin duela kontatuko die bere lagunei. Baina kontakizunak beste norabide bat hartuko du, altxorrarekin batera oso arriskutsua den arma bat dagoela esango baitie: urrezko zintzarria. Zintzarria lepoan jartzea lortzen duenak inguruko izaki guztiak menderatuko ditu. Hori dela eta, euretako batek mapak hartu eta ihes egin behar zuela erabaki zuten Marroik eta bere lankideek, eta gero mapa horiek suntsitu. Baina Marroik bat egingo du Betizurekin eta bere lagunekin, eta planak aldatzea erabakiko du. Basamortutik ihes egiteko lagundu diezaioten eskatuko die. Kontua da botere hori ezin dela halako izaki gaiztoaren esku utzi, eta hori denen ardura da.

Egoera honen aurrean ez dute jakingo zer egin: edo espazio-ontzia konpondu eta lehenago bezala bizi, edo Marroiri eta Xanuei lagundu. Betizuren ustez ezin dituzte Marroiren lankideak eta basamortuko gainerako izakiak egoera horretan utzi, Bullen aginduetara lanean. Marroiren esanetan, altxorra aurkitu ezean Bullek ez omen die ezer

egingo. Berak plano garrantzitsuenak lapurtu ditu eta basamortutik kanpora laguntza eskatzeko moduan dago.

Arrati ados ez badago ere, bi taldetan banatzea erabakiko dute. Arrati eta Eme-U espazio-ontzia konpontzen geldituko dira Marroirekin batera. Betizu eta Betisuisse beste behiak eta Xanuak eskatzeko asmoz joango dira.

Betizu eta Betisuisse basamortuan barruratuko dira. Bidean aurkitutako arrisku guztietatik onik aterako dira. Egoera larri horietan zuhertasunez jokatu dutela ikusiko dugu, indar, adimen, abilezia eta patxada handiz. Balio horiei esker beraien helburua lortuko dute. Oztopo ugari aurkituko dituzte bidean: tranpak, basapiztiak eta soldaduak. Betisuisse oso atsekabetuta dago eta ez du bere burua onartuko bere itxurari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak direla-eta. Baina aurre egin beharko dio arazo horri. Azkenean, gertatutako guztiak lagundu egingo dio bere burua onartzen. Bakoitza den modukoa da, eta bera behia da. Berak dituen balio positiboak aurkitzen ikasi beharko du.

Espazio-ontzia konpontzen gelditu den taldean jarrera kontrajarriak daude: alde batetik, itxura arbuiagarria duen Marroi ez dute onartuko, eta bestetik, Arratik bereari gogor eutsiko dio. Azken batean, ezberdina dena onartzen ez dugula ikusiko dugu. Baita tolerantziarik eza ere. Hitz batez: gizartearen gaitzespena. Bitartean, Betizuk eta Betisuissek presoak hondeaketa lanak egiten ari direneko lekua aurkituko dute. Gatibu dauden horiek “Xanu” maitagarriak dira.

Bullen soldaduek istripua izan duen espazio-ontzia aurkituko dute, ontziak lurreratzean egindako distirak gidatuta. Borrokak bi fronte izango ditu. Batzuk, direnak eta ez direnak egingo dituzte harrapatu ez ditzaten. Elkar lagundu eta onartu beharko dute, eta intolerantzia laguntasun bilakatu. Bitartean espazio-ontzia, planoak eta pergaminoetan agertzen den zintzarriaren sekretua salbu eduki nahi dituzte. Bestalde, Betizuk eta Betisuissek Bulli eta bere soldaduei aurre egingo diete Marroiren lankideak eta Xanuak eskatzeko asmoz.

Batzuen eta besteen artean Marroiren lankideak eta Xangaduko biztanleak askatzea lortuko dute. Espazio-ontzia konpondu egingo dute eta altxorra aurkitu. Urrezko zintzarria, berriz, ez da agertuko. Hortaz, planetatik alde egitea erabakiko dute. Baina aireratu ostean, mapa galdu egin duela ohartuko da Marroi. Bestetik, Betisuisse Arrati esnatzera joango da, gertatu dena kontatzeko asmoz. Baina Arrati ez dago espazio-ontzian. Basamortuan gelditu da zintzarria aurkitzeko asmoz. Espazio-ontzian daudenek barre egingo dute, Arrati basamortuan galduta imajinatzen baitute. Bere bila joango ote dira?

Laburbilduz, istorio honetan argumentua altxor baten bilaketaren ingurukoa da. Istorio honen bitartez, gure bizitzan erreferente izango diren balioak azaleratuko dira: tolerantzia, arraza eta kultur gizarteratzea, eta ezberdina dena onartzea. Horrez gain, tradiziozko mitoen eskema klasikoa gogoratzen digun alegoria dakarkigu istorio honek gogora. Bertan, gure helburuak lortzeko bide zuzena eguneroko lana dela ikusiko dugu. Inork ez digu ezer emango eta norberaren ahalegina erabakigarria da gure helburuak lortzeko.

Fitxa teknikoa:

Zuzendaria: EGOITZ RODRIGUEZ OLEA
Zuzendari artistikoa: Iván Oneka
Ekoizle ejecutiboa: Edu Barinaga – Karmelo Vivanco
Gidoia: Egoitz Rodriguez - Xabi Zabaleta
Ekoizpen zuzendaria: Idurre Cajaraville - Javier Vivanco
Muntaia: Alazne Portu
Animazio zuzendaria: Iker Alvarez
Argiztapen zuzendaria: Andoni Fernández
Musika: ASIER ERCILLA - BALEA
Abestien letrak: Xabier Amuriza
Abestien Interpretaria: Alex Sardui

Datu teknikoak:

Formatua: 3D-ko animaziozko filma
Iraupena: 61 minutu
Metrajea: 35 mm.
Soinua: Setereo digitala
Ekoizlea: Baleuko
Laborategia: Technicolor

Banatzailea:



Barton Films, S.L
C/Uribitarte 8, 4º DCHA.A
48001 Bilbao - SPAIN
TLF. 0034944240559
FAX.0034944238957
E-mail.
susana.barton@bartonfilms.com
www.bartonfilms.com



GOROSTILANDA, S.L.

GOROSTILANDA, SL
TLF: + 34 94 435 28 48
FAX: + 34 94 435 28 49
E-MAIL: gorostilanda@gorostilanda.com

Zuzendariaren biografia: EGOITZ RODIGUEZ

BIOGRAFÍA

Egoitz Rodríguez Olea Galdakaonjaio zen 1978ko 22an. Batxilerra bukatu eta gero, Gizarte Zientzien fakultatean izena ematen du EHUn, ikusentzunezko ikasgaia asko. Ikasten dagoen bitartean, ETBn lan egiten du becario moduan, horrela ikusentzuteko munduarekin kontaktuan jartzen da. 2000. urtean, Publizitatean lizentziazten da eta Baleuko S.Ln lanean hasten da, bertan jarraituko du gaur egun arte. Bertan egiten ditu bere lehenengo dokumentalak. Garai honetan, Baleuko S.L 3D animazioaren munduan sartzen ari da poliki-poliki, baita Egoitz Rodriguez ere. Horrela, 2002an bere lehenengo luzemetraia zuzenduko du, "Betizu Izar Artean". Gero, telebistako "Unibertsolariak" saioa etorriko da.

Zuzendariaren filmografia:

- **Dokumentalak:**

- Esclavos vascos del III Reich (nazismoari buzuzko dokumentala).
- Zabalaga, el jardín del genio (Eduardo Chillidari buruzko documental biografiakoa)
- Ellacuría, caso abierto (El Salvadorreko Aita Jesuita baten hilotza azteztzen duen documental)
- Rehenes en pañales (El Salvadorreko gudan bahituak izan ziren humeen dokumentala).
- Aranzazu, espinas de una utopía
- El oro rojo (Errioxako ardo gorriaren documental)
- Memoria de la represión franquista (Errepresio frankistari buruzko dokumentala)

- **Animazioa:**

- "Betizuak izar artean" luze metraia
- "Unibertsolariak" telebista saioa
- "Betizu eta Xangaduko Misterioa" luzemetraia

- **Gidoia:**

- "Betizuak izar artean" gidoilari laguntzailea
- "Unibertsolariak" saiorako gidoilari laguntzailea
- "Betizu eta Xangaduko Misterioa" an gidoilaria

- **Telebistako programak:**

- Betizu.
- Jaiak.

Baleuko S.L.:

Baleuko S.L. ikus-entzunezkoen sektoreko enpresa bat da. Orain dela hamar urte sortu zen, eta bere hasierako xedea dokumentalen eremuan lan egitea zen.

Printzipio horiek Baleuko S.L.ren hasierako lanean islatu ziren; izan ere, bere zeregina albistegien eta dokumental-serieen alorrera zuzendu zen modu espezifikoan.

Kateen programazioan gertatutako aldaketek eta enpresaren barneko bilakaerak berak Baleuko S.L.ren negozio-eskaintza zabaltzera eraman zuten. Hala, bestelako formatuak ekoizten hasi zen enpresa: lehiaketak, magazineak, barietateak...

Bigarren fase horren ostean, bere hazkunde-prozesu naturalari jarraituz, Baleuko S.L.k hirugarren etapari ekin dio -oraingoari-; bertan, ikus-entzunezkoen ekoizpena ekintza komunikatibo bezala planteatzen da, eta, alde horretatik, Baleuko S.L.k produktuaren gestio integralari heldu dio. ETBko lehen katetik emititzen den Betizu haur-programaren ekoizpenaren kasuan, programaren ekoizpenari dagozkion berezko zereginenez gain, Betizu Kluba gestionatzeaz eta beraren merchandising-ildo osoa garatzeaz ere arduratzen da Baleuko S.L.

Hau da, ikus-entzunezko produktu baten gestioari ekin dio, hasieratik eta bere dimentsio osoan; alde horretatik, programa produktu komunikatibotzat hartzen du, pantailatik haratago doan dimentsio batez.

Era horretan, enpresa den aldetik, gaur egun Baleuko S.L. gai da telebista-ekoizleei dagozkien zeregin eta eginkizun guztiak bere gain hartzeko, eta, gainera, telebistako produktua oso-osorik gestionatzen ahal du, haren dimentsio soziala barne sartuta: erakundeen gestioa, ekitaldien gestioa eta marketinga.

Baleuko S.L-k animazio alorrean egindako azken lanak:

“Olentzero gabonetako ipuina” luzemetrai animazioa (2003)

“Betizu izar artean” luzemetrai animazioa (2003)

“Unibertsolariak munduaren ertzaren bila” luzemetrai animazioa (2004)

“Olentzero eta subilaren lapurreta” luzemetrai animazioa (2005)